BIZITEGI ERAIKINA — KOLON PASEALEKUA 33

C MAILA





Egilea eta data: Florencio Mocoroa; 1935

Deskribapena

Etxadi erremate gisa kantoi bikoitzeko eraikina; behe oina eta sei goi oin ditu, azkena atzeraemangunean. Etxeak bost atari ditu, eta atari bakoitzean oin bakoitzeko bi etxebizitza. Kasu gehienetan etxebizitza horiek alderik aldekoak dira Galtzada Nagusira ematen duen atarian izan ezik. Honek hondo txikiagoa du. Eraikitako azalerak oso aprobetxatua dagoen orubearen zati handi bat okupatzen du; ondorioz, etxadi patioa txikia da. Patio nagusi honetaz gain, banaketen barrualdean kokaturiko erdiko geletarako beste zortzi patio txiki daude. Etxe honen ezaugarri adierazgarria da, perimetro osoan agertzen den etengabeko lerro horizontal edo inposten multzoa. Konposizio gai bera hiru fatxadetan agertzen da. Konposizio hori balkoien eta irteten diren gelen artean dauden erritmo diferentziak ezkutatzeko eta itxura bateratua emateko baliabide bat da.

Babes erregimena.

1.- Babesteko erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena.
- A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: arotzeriak.
- B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
- C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: Zurriola 32 eta 34, Galtzada Nagusia 3 eta Kolon pasealekua 31 zenbakiekin batera osaturiko esku hartze unitatean sartu izanari loturikoak.
- D.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.